

**INTERPELAZIO ZUZENA, HIRIGINTZA SOSTENGAGARRIKO ORDEZKARIAK  
ARTE EDERRAK JAUREGIKO ERAIKIN BABESTUARI BURUZ EMANDAKO  
LIZENTZIARI BURUZ**

Ricardo Burutaran Ferrék, EH Bilduko udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 97. artikulua babesean, ondorengo **INTERPELAZIO ZUZEN** hau egiten diot alkateari, irailaren 30eko osoko bilkuran **presazko prozeduraren bidez** aztertzeko, Hirigintza Sostengagarriko ordezkariak Arte Ederrak Jauregia eraikin babestuari buruz emandako lizentziari buruz.

**JUSTIFIKAZIOA**

Berriz ere komunikabideen bitartez jakin dugu joan den astean udal lizentzia eman zutela, antza denez, Arte Ederrak Jauregia eraikin babestuaren gainean.

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiak egiaztatu ondoren, ez dugu aurkitu aipatutako higiezin babestuari buruzko aipamenik. Hala ere, alkateak berak defendatu du toki administrazioak emandako lizentzia, atzo egindako adierazpenetan.

Hau da, pentsatzekoa da lizentzia Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez eman dutela, eta horrek harritu egiten gaitu, ebazpenaren bidez baimendu nahi den esku hartzearen xedea kontuan hartuta.

Nahiz eta gaur egun oraindik ere espero dugun talde honek irailaren 23an eskatutako lizentzia hori, beldur gara, kontrakorik ebatzi ezean, eraikin babestua eraisteko eta eraldatzeko esku hartzea berehalakoa izango dela.

Alkateak bere adierazpenetan adierazi duen arren "Arte Ederren gaiak buelta gehiago ez duela onartzen", egia esan, oraindik ere zalantza asko daude eraikin horren inguruan.

Bestalde, gogorarazi behar da ICOMOSen XX. mendeko Ondarearen Nazioarteko Batzorde Zientifikoak Nazioarteko Alerta bat duela abian Arte Ederrak Jauregiaren egoeratik. UNESCOri atxikitako nazioarteko erakunde horren helburuen artean dago "sustatzea monumentuak, eraikin multzoak eta lekuak kontserbatzea, babestea, erabiltzea eta garatzea".

Ildo horretan, Ondarearen Nazioarteko Batzorde Zientifiko horrek ohartarazi zuen kezkatuta zegoela Donostiarako funtsezkoa den hiri eta paisaia baliotsu pieza horren benetakotasuna, osotasuna eta berezitasuna mehatxatzen zuten" proiektuei buruzko albisteengatik. Txosten horretan, Arte Ederrak Jauregiaren balioak nabarmentzen dituzte, eta honela definitzen dute: "Zinematografoen lehen saiakuntza arkitektonikoen adibide bakanetako bat".

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

Aipatutako nazioarteko alerta ICOMOSEk bota du —XX. mendeko kultura ondarean aditu diren askok osatzen dute—, ondare elementu horren egoera kezagarria, haren osotasunerako arriskua eta udal Gobernuak higiezina legez eta *de facto* behar bezala babesteko erabakirik hartu ez izana kontuan hartuta.

Hala eta guztiz ere, Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariak baimena eman du —antza denez, zinegotzi ordezkariaren ebazpen baten bidez— eraikina barrutik eraisteko, fatxadak aldatzeko, jasotze bikoitza eraikitzeko, bai eta, prentsak dioenez, 38 estudio, 36 apartamentu eta 4 suite ere, guztiak ere erabilera turistikokoak. Horri, gainera, hiru solairuko aparkaleku robotizatu bat eta "zehazteke" den erabilera tertziario bat gehituko litzaioke eraikinaren lehen hiru solairuetan.

Horregatik guztiagatik, honako **INTERPELAZIO ZUZEN** hau aurkezten dugu

1. Zer dela eta eman dute lizentzia hori, kontuan hartu gabe ICOMOSEk egindako nazioarteko ondare alertaren edukia eta erakunde horrek Arte Ederrak Jauregia babesteko egindako gomendioak? Kezkatuta al dago alkatea nazioarteko alerta horri jaramonik ez egiteak Donostian izan dezakeen eraginagatik?
2. Zer dela eta eman dute lizentzia, obren xedea eta garrantzia kontuan hartuta, Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez? Ba al dago irizpide desberdintasunik Tokiko Gobernu Batzarra osatzen duten bi taldeen artean? Erabaki hori Tokiko Gobernu Batzarraren irizpen bidez aurkezteko asmoa duzu?
3. Gure taldeak eskatutako lizentzia bidaltzeko asmoa duzu? Zein epetan?
4. Kontuan hartuta lizentzia bat dela eta ez plangintza onartzekoa, emandako lizentziak eraikinaren lehen hiru solairuetan baimentzen al ditu obrak?

Donostian, 2021eko irailaren 29an

**Sinatua: Ricardo Burutaran Ferré,**  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia.